

Merkataritzako salmentak % 18,3 jaitsi dira 2020ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEn


Aurreko hiruhilekoaren aldean, Merkataritza % 13,6 murriztu da

Handizkako eta Txikizkako merkataritza eta lbigailuen salmenta eta konponketa barne hartzen dituen Merkataritza-sektoreak % 18,3ko jaitsiera izan du salmentetan, termino errealetan, 2020ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta urtaroen ondorioak kenduta, Merkataritza % 13,6 murriztu da prezio konstanteetan.

Merkataritzako koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. Merkataritza. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzaren barruan, salmenta errealean urte arteko bilakaera, egutegiaren ondorioak kendu ondoren, negatiboa izan da hiru adarrentzat, eta nabarmentzekoa da lbigailu motordunen salmenta eta konponketan behatutako % 34,0ko atzerakada. Handizkako merkataritzaren salmentak % 17,4 jaitsi dira, eta Txikizkako merkataritzarenak % 15,5.

Lurraldeen arabera, Araban % 18,4 murriztu dira salmentak, Bizkaian % 19,5 eta Gipuzkoan % 16,3, hori dena 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta eta prezioen eta egutegiaren ondorioa kenduta.

Euskal AEko Merkataritzako langileen indizea % 1,5 jaitsi da 2019ko bigarren hiruhilekoaren eta 2020ko bigarren hiruhilekoaren artean, eta horrek esan nahi du %

1,7ko beherakada izan dela, urtaroen ondorioak kenduta, 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Merkataritza. Prezio finkoak.
Behinbehineko datuak. II/2020

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
ÍNDICE GENERAL	-18,3	-13,6	-12,0
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-34,0	-23,5	-25,8
Handizkako merkataritza	-17,4	-13,4	-11,3
Txikizkako merkataritza	-15,5	-12,1	-9,6
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	-18,4	-13,6	-12,4
Bizkaia	-19,5	-15,0	-12,5
Gipuzkoa	-16,3	-11,4	-11,0
ENPLEGUA	-1,5	-1,7	-0,6

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

INFORMAZIO OHARRA

Ekainaren 21ean amaitu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoera, **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeari buruzkoa. Bertan hartutako aparteko neurriek eragin zuzena izan dute ZKIn parte hartzen duten establezimenduen jardueran.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enpleguaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren ondorioak zuzentzeko eta serieak urtaro-ondoriorik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten enpresa guztiei egindako ahaleginagatik aparteko baldintza hauetan. Haiei esker, 2020ko bigarren hiruhilekoko ZKI laginaren % **90,74ko estaldurarekin** kalkulatu da (laginaren informazioa gehienbat uztailen eta abuztuan jaso da).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62